

Donostia, 2017ko azaroaren 17a

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, SARIETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEARI BURUZ

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udaltzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, sarietan genero ikuspegia txertatzeari buruz hilabete honetako PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2014-2018) amaitzekoa da laster, eta badu garrantzi handiko atal bat, Donostiako agenda kulturean genero ikuspegia txerta dadin sustatzeari buruzkoa.

Gure ustez, funtsezkoa da atal hori, kulturak aukera ugari ematen baititu gizonen eta emakumeen berdintasun egiazko baten aldeko konpromisoa ikusarazteko. Donostian egiten diren jaialdietan sariak ematean genero ikuspegia txertatzea da helburua.

Planak, ordea, ez du lortu berdintasunerako sariak sortzea, adibidez, Donostiako Zinemaldian, nahiz eta horrek sekulako oihartzuna izan zezakeen, eta horregatik, interpelazio bat egin genuen hilabete honetan. Batzorde hartan, zinegotzi ordezkariak esan zuen Zinemaldiaren zuzendariarekin harremanetan jarri zirela eta proposamen horri buruz adierazi zuela berdintasunerako saririk sortzeko asmorik ez dutela. Esan zuen, halaber, Giza Eskubideen Zinemaldian, adibidez, pausoak eman direla, sariak kreailera sistemaren bidez emanez.

Kontuak kontu, deigarria da Zinemaldiak berdintasunerako sari bat sartzeko asmorik ez izatea, kontuan izanda zer-nolako oihartzuna izan dezakeen palmaresean horrelako sari bat sartzek, eta erakutsi nahi ez izatea Zinemaldiak konpromisoa duela berdintasuna lortzearekin artearen eremu horretan, non bizitzako gainerako arloetan bezala, gizonen eta emakumeen berdintasuna lortzeko bidean pausoak ematea ezinbestekoa den. Kontuan izanda palmaresaren barruan badirela Zinemaldia babesten edo laguntzen

duten zenbait enpresaren izena daramaten sari ofizialak, ez litzateke zaila izango Udalak berak ematea Zinemaldiko Berdintasunerako saria, atal horretan edo bestela dauden sari paralelo ugarien eremuan (Greenpeaceren Lurra saria eta Gipuzkoako odol-emaileen elkarteak ematen duen Elkartasunaren saria dira bi adibide).

Bestalde, 1994tik, Heineken Jazzaldiak Donostiako Jazzaldia saria ematen dio jazz munduan nabarmena den musikari edo abeslari bati, jazzari egindako ekarpenaren aitortza gisa. 23 urte hauetan eman diren sari guztietan, bi baizik ez dira izan emakumeentzat, eta Shirley Horn saritu zutenean, gainera, 2004an, Fernando Truebari ere beste sari bat eman zioten.

Donostian egiten diren jaialdi garrantzitsuenei buruzko datuak bilduta, eta abian den Berdintasunerako III. Planean ezarritako helburuetako bati jarraituz, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari eskatzen dio susta dezala arte eszenikoen jaialdietan berdintasunerako sariak sor daitezen, nagusiki musika eta zinema jaialdietan, Donostiak gizonen eta emakumeen berdintasun egiazkoa lortzearekin duen konpromisoa agerian gera dadin.

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.